



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/11/20

## **Bizkaiko Foru Aldundiak Enplegurako beste lau lantzadera jarriko ditu martxan datorren urtean**

Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak gaur jakinarazo dauenez, Aldundiak enplegurako beste lau lantzadera martxan jartea aurreikusten dau 2018. urtearen “hasieran”. Ekimen hori lurraldeko Aurrekontuetan jasoten da. Lantzadera horreek, orain denpora gitxi Bilbon, Barakaldon, Basaurin, Erandion eta Muskizen funtzionetan hasi diranei gehituko jakez.

Talde Mistoak eskatuta, diputatu andreak, DEMA Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentziak sustautako “Enplegura salto egin” kanpainarako ekintzen eta aurreikusitako garapenaren barri emon dau Bizkaiko Batzarretako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasunerako batzordean. Laespadak baieztu dauenez, ahalik eta eskatzaile gehien batzeko helburuagaz, informazioa emoteko 184.600 “flyer” postontzietan sartzean eta sare sozialetan hainbat jakinarazpen egitean oinarritu zan kanpainaren ostean, lan barik egozan “1.582” pertsona apuntau ziran, aitaturako bost lantzaderatan egozan 100 plazak beteteko.

Aukeraketa prozesuaren hasieran telefono bidezko hartu-emona egin zan eskatzaile guztiakaz. Horren ostean, informazio hitzaldia egin zan aukeraketa prozesuagaz jarraitu gura eben hautagaiakaz. Azkenean, DEMAko teknikariek lantzadera bakotxeko 20 kide aukeratu ebezan, 10 pertsonako taldeetan antolatu ziran talde-alkarrizketen ostean.

Sailetik, Lurraldean martxan jarritako lehenengo Lantzaderen ebaluazio bat egin zan, Sara de la Rica UPV/EHUKo Ekonomia katedradunak gauzatutakoa (Batzar Nagusietan emon zan horren barri). Bertan ikusi zanez, lantzadera horreek “baliozkoak” dira beharra lortzeko. “%20” hobetzen ditue lanpostua aurkitzeko aukerak, Laespadak adierazo dauenez. Bere helburua, Lantzadera horreetako partaideen “%60k” beharra aurkitzea da, norberaren edo beste batzuen kontura.

### **GIZARTE GRADUATUENTZAKO PLAZA GEHIAGO ETA BARDINTASUNERAKO FORU ARAUA**

Podemos Bizkaia taldeak egindako galderi erantzunez, Laespadak baieztu egin dau 2018an enplegu eskintzea egingo dala Gizarteratze zerbitzuan, gizarte graduau soslaia izango daben plaza finko bi gehiago eta aldi baterako beste zortzi gehitzeko, azken horreek, laneko kargen azterketea egin ostean hauteman diran egitekoen metaketak arintzeko. Diputatuak adierazo dauenez, kontratazino horren zergaitia, Karterako Dekretu barriaren aplikazinarako bidea erraztea da.

Beste alde batetik, diputatuak Bardintasunerako Foru Araua be aitatu dau. EH Bilduk adierazo dauenez, Arau hori urte honetako “urtarrilean” onetsita egon behar zan. Laespadak bere konpromisoa adierazo dau, arauzko proiektua “oso denpora gitxi barru” prest egon daiten, “errazoi teknikoak” eta arauaren “konplexutasuna” bera, prozesua “moteltzen ari dirala” adierazo ostean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
20/11/2017

## **La Diputación de Bizkaia pondrá en marcha el próximo año cuatro nuevas Lanzaderas de Empleo**

En una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado hoy que la Diputación tiene previsto poner en marcha cuatro nuevas lanzaderas de empleo “a principios” de 2018, iniciativa que se recoge en los Presupuestos del territorio. Estas se unirán así a las cinco Lanzaderas que recientemente han comenzado a funcionar en Bilbao, Barakaldo, Basauri, Erandio y Muskiz.

La diputada ha informado a la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de la Cámara vizcaína, a petición del grupo Mixto, de las actuaciones y desarrollo de la campaña “Lánzate al empleo” que ha promovido la Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento DEMA. Laespada ha confirmado que, tras realizarse la campaña que consistió en el buzoneo de 184.600 “flyers” informativos y distintas comunicaciones en redes sociales para captar al mayor número de solicitantes posible, se llegaron a apuntar “1.582” personas desempleadas para cubrir 100 plazas en las cinco lanzaderas mencionadas.

Las fases del proceso de selección empezaron con un primer contacto telefónico a todas las personas solicitantes, al que le siguió una charla informativa con los candidatos o candidatas que deseaban continuar con el proceso de selección. Los técnicos de DEMA eligieron finalmente a los 20 integrantes de cada lanzadera después de mantener entrevistas grupales que se organizaron con grupos de 10 personas.

Desde el Departamento se realizó una evaluación (desarrollada por la catedrática de Economía de la UPV/EHU Sara de la Rica que ya dio cuenta en las Juntas Generales) de las primeras Lanzaderas desarrolladas en el Territorio, que demuestran que son “útiles” para conseguir empleo. Mejoran “un 20%” las posibilidades de encontrar un puesto de trabajo, según Laespada, quien se ha marcado como objetivo que “el 60%” de los asistentes a estas Lanzaderas encuentren un trabajo, bien por cuenta ajena o por cuenta propia.

### **NUEVAS PLAZAS PARA GRADUADOS SOCIALES Y NORMA FORAL DE IGUALDAD**

A preguntas de Podemos Bizkaia, Laespada ha confirmado que el año 2018 se producirá una oferta de empleo en el servicio de Inclusión Social para incorporar dos nuevas plazas fijas con perfil de graduado social y otras ocho temporales, estas últimas para cubrir la acumulación de tareas que se han detectado tras efectuarse un análisis de las cargas de trabajo. La diputada ha señalado que esta contratación obedece a favorecer el tránsito a la aplicación del nuevo Decreto de Cartera.

Por otro lado, la diputada se ha referido a la Norma Foral de Igualdad que, según EH Bildu, debería de haber estado aprobada “en enero” de este año. Laespada se ha comprometido a que el proyecto normativo esté “en un muy breve periodo de tiempo” después de afirmar que “cuestiones técnicas” y la propia “complejidad” de la norma, “están ralentizando” el proceso.